

# Madriren «mezulari lana» egiten ari dira EAEko gobernuburuak HBren ustez

Ardanzak ere ez du uste ETaren agirietako gogoeta erakunde armatuarena denik


**G**asteizko Jaurlaritzako arduradunek ETaren estrategia HBk gidatzen duela esateak, Madrileko Gobernuarentzat «mezulari lana» egiten ari direla erakusten du Jon Idigorasen esanetan. Jose Antonio Ardanza lehendakariak bide beretik jo du, «hemengo jendeak egiten du gogoeta ETaren ordez» esan berri du.

BILBO


Jon Idigoras HBko Mahai Nazionalako eledunak gogor kritikatu zituen Gasteizko Jaurlaritzako Martiarena, Atutxa, Arregi eta Ardanzak egindako adierazpenak, HBri ETAn agintzea leporatzen ziotenak.

Idigorasen esanetan, Rafael Vera Espainiako Segurtasun idazkariak esanikoa errepikatu baino ez dute egin. «Leporaino zikindu dira, Espainiako inteligentzia zerbitzuek aginduta, kontrainsurgentziako liburu bitartekoak erabili dituztelako. Berritro frogatu duite Madrileko Gobernuarentzat morroi lana egitea tokatu zaiela», ziurtatu zuen.

HBko eledunak eritzi zion, Jaurlaritzako partaideak «kontraesanetan erori eta politikoki barregarri geratu» direla etengabe esan dutelako ETak agintzen zuela HBren barruan. Orain, aldiz, kontrakoa baieztatzen dute «Estatuko Segurtasun zuzendariak horrela esan duelako». Jaurlaritzako partaideak «politikaren lora» deitu ondoren, argudioa aldatzeko «zeozer garrantzitsu» gertatu dela eritzi zion Idigorasek. «Lehenengoa, Ajuria Eneako itunaren bitartez HBri ezarri nahi izan dioten



Jon Idigoras, HBko bozeramalea eta Jose Antonio Ardanza.



**J**aurlaritzako kideek beren argudioa aldatzeko «zerbait garrantzitsu» gertatu dela uste du Idigorasek.

isolamendu eta eraso politikaren porrota. Horren emaitzarik adierazgarrienak, Ituneko bertako alderdiatko batzuek egindako adierazpenak dira, berau nekatuta dagoela eta beste mota bateko neurri politikoak ezartzeko beharra aipatuz», esan zuen.

Bigarrena, «HB Euskadin erreferentziako aukera politiko bihurtzea» aipatu zuen Idigorasek. Beraren esanetan, «une orotan HB kontutan hartu beharko da gaur egun Estatuarekin dagoen gatazkari edozein irtenbide normalizatzaile bilatzekotan».

«Horregatik —amaitu zuen— kontraesankor eta harrigarriagoak

egiten dira adierazpen hauek, Gobernu Baskongadoak —eta ziurtasunaren ordez, ziurtasuna bedi, halaxe bait dio Gasteizko Gobernuak— berritro ere guda zikina berritro ere bermatzen ahalegindu ezean, honek dakarren guztiarekin. Edo are gehiago, Gobernu Baskongadoa eta Ardanza, bere garaian, jakitun izatea HBko buruzagi politikoak hilko zituztela». Ildo honetatik, abisua eman zien Ardanzari eta Eusko Jaurlaritzari «Herri Batasunaren kideen aurkako edozein gertakizuna medio, beraien eginkizunaz oharrezko», eta «erantzule zuzen» egiten zituztela gaineratu zuen.

## ARDANZA ETA-REN AGIRIEI BURUZ

Jose Antonio Ardanza lehendakariak berretsi egin du, Arregi bere gobernuko bozeramaleak ETaren agiriei buruz esandakoa. Ardanzak ez du uste ETak analisi politikorik egiten duenik.

**✓** «Logikoa da pentsatzea, batez ere ETaren azken komunikatua irakurri eta gero, baten batek egiten duela gogoeta bere ordez, hemengo jendeak alegia» adierazi du Ardanzak.

«ETA gorderik dabil aspaldi honetan, eta argi dago gaur egun ez duela inolako erraztasunik egoerari buruzko gogoeta egiteko. Beraz logikoa da pentsatzea, batez ere ETaren azken komunikatua irakurri eta gero, baten batek egiten duela gogoeta bere ordez, hemengo jendeak alegia» adierazi zuen EAEko lehendakariak astearte gauean ETBko 'Lehendakaria erantzunez' saioaren barruan.

Ardanzak aipatzen duen azken agiri horretan gobernu hirukoitzaren haustura aztertzen duen erakunde armatuak eta baita alderdi politikoen eta Ertzaintzaren jarrera ere. Ez zuen HB aipatu ETaren agiriaren erantzule bezala, Arregik ordu batzuk lehenago egin zuen bezala, ETaren barruko inork ez dituela egiten uste du, «analisi horiek hemen egindakoak dira» esan zuen Ardanzak.

Ajuria Eneako itunkideak hil honen 21ean edo 28an bilduko direla iragarri zuen saio honetan Jose Antonio Ardanzak. Leitzarango autobiodearen auzian gertatutakoaren erantzule HB egin zuen, eta bere jarrerak «nolabiteko mesfidantza» sortu duela EAJren barnean esan zuen. «Nire alderdia hala ere, beti egongo da prest HBri esku bat botatzeako benetako borondatea ikusten bada».

**Azken hauteskondeei buruzko ETaren barne dokumentu bat argitaratu dute**

DONOSTIA

Maiatzeko udal eta foru hauteskondeei buruzko balorazioa laburbiltzen duen ETaren dokumentu baten zati batzuk eman zituen argitara El Diario Vasco egunkariak. Analisi horretan, argitaratutako zatien arabera, ETak HBren botoen «galera irregularra baina kontutan hartzea» aipatu du.

Hauteskondeei aurre egiteko momentua ez zen onena, dokumentuaren arabera, batez ere, «paktuaren eraginez jasotako desgastea egiaztatatu ondorengo errekupeazio dinamika» oraindik «geldoa» zelako. ETaren ustez, urte hasierako erasaldi armatuak «erakunde armatuaren berpizteko ahalmena» argi utzi bazuen ere, beste esparru batzuetan egoera ez zen hain ona. Faktore batzuk aipatzen dira El Diario Vasco argitaratutako dokumentuan: «enfrentamendua areagotu eta distortsionatu egiten duten paktuak», «ezker abertzalearen barneko disfuntzioak» (antolakuntzan, edo «Fando edo Esnaolak izandako aktazioen ondorioengatik»), «blokeko erakundeek dagokien dinamizazio politikoaren eta eratzaileren betebeharra behar besteko irudimena, kalitate eta eraginkortasunarekin ez egitea».

Hauteskunde ondorengo egoeraz, ETak uste du Euskal Herria eta Estatuaren arteko enfrentamenduen faktore nagusiek bertan dirautela: «ETaren ahalmen operatibo berrindartua, HBren pisu politiko eta elektoral garrantzitsu, hirugarren bideen porrota edo bazterketa (EA), EEn atzeraezinezko deskalabroa eta egungo marko politikoa etengabe agortzea».

**FN: «Ez dugu Euskal Herriko independentzian sinesten»**

M. ESTEBAN / BAIONA

«Ez dugu Euskal Herriko independentzian sinesten, lurralde handiagoak nahiago ditugu» EGUNKARIARI esan zionez Alexis Arette Landresse, Pirinio Atlantiarren departamenduko Front Nazionalako ordezkariek. Landressek gaineratu zuenez, «errealitatea hor da: Miarritzetik aparte, azken udal hauteskundeekin, Frantziako Euskal Herrian independentismoa ez da asko hedatua».

Beste eskualdeetan bezala, FN zerrenda prestatzen ari da datozen eskualdeetako hauteskundeentzat. Alexis Arette Landresse, Biarnesa, izango da zerrendaburu. Akitaniako Eskualdeko kontseilaria da oraindik FNko ordezkarria.

Alexis Arette Landressek azaldu zigunez: «Gure zerrendan, euskal nortasuna agertuko da, hautetsigaien erdia euskaldunak izango bait dira». Nahiz eta FNko zerrenda publikoa ez den oraindik, zerrendaburuak adierazi zigun «nahiko irekia izango da, hautagai judu batek eta Kreola batek hartuko dute parte bertan».

## Negoiazioa «indarkeriarekin amaitzeko» dela dio Agirianok

DONOSTIA

ETA talde armatuarekin negoziaketarik egotekotan, hori indarkeriari amaiera emateko litzatekeela ziurtatu zuen atzo Donostian Jose Antonio Aguiriano Madrileko Gobernuak EAEn duen ordezkariek. Agirianok Donostia eta Irungo polizi dependentziak ikusten izan zen.

Agirianok ETA eta Espainiako Gobernuaren arteko kontaktuak izan zituen aipagai bere ikustaldian, baina ez zuen baieztatu horiek izan direnik. Herri Batasunak prentsurre batean talde armatuak eta Madrileko ordezkariek izandako elkarrizketen berri eman zuen, datei eta partaideei buruzko xehetasun guztiak, baina Agirianok atzo esan zuenez, «nik ez dut kontaktu horien berri».

Rafael Vera Estatuko Segurtasun arduradunak egindako adierazpenak ere aipatu zituen Madrileko Gobernu ordezkariek. Jakina denez, Herri Batasunako sektore batek ETA

**✓** Espainiako Gobernuak ETA eta HBko bitartekariekin izan dituen kontaktuen berri ez duela esan zuen Jose Antonio Agirianok.

kontrolatzen duela ziurtatu zuen Vera eta Agirianok ere alderdi abertzalea eta talde armatua parekatu zituen atzokoan eta biak gauza berdina direla eman zuen ulertzerá.

Bestalde, Jose Antonio Lopez Ruiz 'Kubati' ETakideak herenegun esan zituenak «erkeriatzat» jo zituen Agirianok. 'Kubatik' Madrileko Entzutegian esan zuenez, ETaren atentaturen bat nozitzeko arriskua duten kargu publikoek euren senideengandik urrundu beharko lukete. Horrela ez eginez gero, gerta daitekeenaren erantzunleak kargu



Agirianok Donostia eta Irungo polizia dependentziak bisitatu zituen. EFE

publiko beraiek direla adierazi zuen ETakideak.

Ajuria Eneako hitzarmanari dagokionez, horren garrantzia azpimarratu zuen eta, alderdiek ez ezik, gizarte osoak bere egin behar duela nabarmendu zuen Agirianok.

Atzoko ikustaldian Jose Maria Gurrutxaga, Gikuzpoako gobernadore zibila, Benedicto Carballeira, EAEko Poliziburu eta Alfredo Pe-

rez Manzanos, Gipuzkoako probintzi komisaria izan ziren Agirianorekin. Lau horiek Amarako komisaldegia eta Aldapeta eta Atotxako polizi dependentzietan egon ziren eta bertako arduradunekin mintzatu ziren. Gero Irunera joan ziren, komisaldegia eta mugako postuak ikustera. Donostia eta Irun dira oraindik Ertzaintzarik ez duten Gipuzkoako bi herri bakarrak.